



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Topikoak

Sargoria azalera itsatsi zai-
gu eta berunezkoa da ai-
rea; arnas kolpe bakoitza
behin eta berriz murtxika-
tzen dute gure sudur-min-
tzek. Surflariak dantzan
dabiltza beren oholetan Zurriolako
ertz bateko apar zurietan eta inu-
rrien gisan pilatu dira bainujantzidu-
nak hareatan, nork bere toalla kolo-
retsuaekin etxe bat eraiki nahiko
balu bezala. Uda iritsi da bere aire
ezarekin, bere sargori astunarekin, eta
arindu egin dira egunkariak, oporreta-
ra doaz albisteak eta hondartzen eta
jaien inguruko gehigarriak irakurtzen
ari da petrilean eseritako agurea. Sa-
gues begi-kolpe batekin aztertu dut.
Gogoan dauzkat gaztetxotan Aste Na-
gusian hemen bizi izan genituen kon-
tztuertuak: lehendabiziko kalimotxoak
eta jende pilaketak eta gurasoekin ne-
goziazio prozesu gogorren ondoren
adostutako itzulera orduak. Gaur ez
dago oholtzarik. Turistak hara-hona
dabiltza beren argazki kamerekin eta
ozen hitz egiten dute, ulertzen ez ditu-
dan hitzak ulertzen ditudanekin na-
hasten dira eta hizkuntzak, eguzkitako
krema usainak eta sudurretik sartzen
den berunezko airea pilatzen dira nire
zainetan. Bero egiten du.

**Aurten ere iritsiko da Aste Nagusia
eta La Oreja de Van Gogh etorriko da
hona, eta Los Secretos, Los Manolos,
eta abarrak. Gozategi izango da eus-
karaz kantatuko duen talde bakarra.
Lagunekin hona etortzen ginen ga-
raietako eztabaidekin oroitu naiz:
euskal kultura ez dela saltzen eta
euskal kultura aspergarria dela eta
mundura zabaldu beharra daukagu-
la.** Eta erantzungo nuen euskal musika
anitza dela, ahots eta estilo asko dau-
dela, baina ezetz esango zidaten, “eus-
kal” gehiago dela “musika” baino. Eus-
karaz dakien mediku onik ez dagoen
mitoarekin akordatu naiz. Eta pentsa-
tu dut ederra dela mundura zabaltzea,
munduko talde onenak gurera ekar-
tzea. Baina “mundua” eta “gaztelera”
sinonimotzat hartzea ez dakit ez ote
den itxikeria sintoma. Eta petrilean
egunkaria irakurtzen ari denari begira

orain dela egun batzuetako notizia
ekarri dit sargoriak azalera: terroris-
moaren beldurrez euskaraz ikasi ez zu-
ten ertzainena. “Terrorismoa” eta “eus-
kara”. “Mundua” eta “gaztelera”.
Harrigarria da hitz batzuk nola erans-
ten zaizkien besteei, eta nola bata esa-
teak bestea ere esan nahi duela sines-
tera heltzen garen. Gaztelarak GALik
izan ez balu bezala, konkistatzaile-
rik izan ez balu bezala, diktadurarik izan
ez balu bezala. Baina gaztelarak joan
zen mendean hona etorri eta fabrike-
tan goizetik gaueraino lanean aritu eta
Euskal Herria bizitzeko modu berriak
erakutsi zizkiguten langileak ere badi-
tu, Lorca ere badu, “Los lunes al sol”
ere badu; milioika ahots ditu gaztele-
rak eta haietako bakoitzak definitzen
du. Baina euskarak ahots bakarra du
nonbait; indarkeriari lotua, modernoa
ez dena, salgarria ez dena, mundurako
balio ez duena. Hizkuntza hitzunok
egin beharrean hizkuntzak hitzunok
egin egingo bagintu bezala.

**Beroa azalera eta pentsamendura
itsatsita daramat eta Saguesetik
Kursaal aldera abiatu naiz bete-bete
eginda dagoen espaloian barrena.
Jendea dabil toalla bizkarrean hartu-
ta, jendea hizketan, jendea izozkia
janez, jendea egunkaria besapeetan
hartuta, jendea jendea eta jendea;
eta turistek beren argazki kamere-
kin harrapatzen dituzte Zurriolako
ilunabarra eta olatuak eta hondartza
betea eta gu, gu ere argazki kamere-
kin harrapatzen gaituzte lauburu
bihurtuta, txapela eta abarka bilaka-
tuta, tokiko topiko, esanahiz gabetuta,
hizkuntza berezi batean mintzo arren
munduari ezer esateko ez dugunak;
guk gure buruari kontatzen dizkiogun
gezurrak erakusten dizkiogu gugana
datorrenari eta ulertzen ez ditudan hi-
tzen eta ulertzen ditudanen eta bero-
saparen artean zerbait oihukatu nahi-
ko nuke; banaizela esan, banabilela.
Baina bero astunak arindu ditu egun-
kariak. •**



Inurrien gisan pilatzen dira bainujantzidunak Zurriolako hareatan.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS